

2005-10-21

Kultur politikei buruzko biltzarra azaroan Bilbon

BILBO

Azaroaren 14an eta 15ean Bilboko Euskalduna Jauregian Kultur Politikei Buruzko Nazioarteko I. Biltzarra egingo dute. Gurutz Larrañaga Lakuako Gobernuko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen aburuz, biltzarrak bi ildo nagusi ditu: «Lehenengoa munduko beste toki batzuetako kulturen eta komunikazioaren problematika berriak ezagutzeko da. Bigarrena barne- hausnarketara eta konpromisora bideratuta egongo da, bai euskarari bai kulturari dagokionean», adierazi zuen.

Hausnarketari atea irekiko dioten hitzaldi ugari antolatu dituzte goizetarako, eta gai jakinei buruzko eztabaida-mintegiak arratsaldean partaidetzari atea irekitzeko. Ekintzaz betetako bi egun izango dira Larrañagaren ustez, eta hirugarren egun bat bisita teknikoetarako eta kultura ekipamenduetarako utziko dute.

Hasiera ekitaldian, Globalizazioaren, Kulturaren eta UNESCOk kultura aniztasunari buruz egindako Mundu Konferentziaren balorazioa egingo du Armand Mattelart-ek.

Egitarau anitza

Minesotako Unibertsitateko irakasle Michele Boldrinek lehenengo jardunaldiko ponentziak jarriko ditu abian, "Jabetza Intelektuala Informazioaren aroan" hitzaldiarekin. Gainera, Enrique Bustamante katedradunak "Komunikazio-politikak eta telebista zerbitzu publikoa" ponentzia aurkeztuko du, eta Ramon Zallok, EHUko katedradunak, "Kultura politika EAEn" hitzaldia aurkeztuko du. Bestalde, arratsaldeko lan-saioan mintegiak izango dira, eta euskal kulturaren garrantzitsu diren hainbat esparruren analisisa egingo dute. Horrela, eskulangintza, dantza, antzerkia, ikus-entzunezkoen klusterra, edota "Kultura-politikak EAEn, Nafarroan, Iparraldean eta Akitanian" izango dira eztabaidagai. Azaroaren 14ko saioan "Otehitari biraka" antzezlanak izango da ikusgai, Euskalduna Jauregiko bertako A1 aretoan.

Anjel Lertxundi idazlearen esku izango da bigarren eguneko irekiera hitzaldia: "Kulturaren esparruak euskaratik: espazioak eta egoera" deituko da, hain zuzen ere. Gerora, Quebeceko kultura eta komunikazio politika izango da mintzagai, Gerald Grandmont bertako Kultura, Ondare eta Ministro Arteko Gaiei buruzko politika ministroaren eskutik. Gainera, Grandmontek berak Kataluniako, Galiziako, Euskal Herriko eta Quebeceko kultura politiken inguruko mahai-inguruan parte hartuko du, Gurutz Larrañagarekin, Genma Sendrarekin eta Luis Bararekin batera.

Bigarren lan-saioko arratsean arte plastikoa, liburutegi-sistema, fonografia eta sorkuntza-prozesua izango dira eztabaidagai. Besteak beste, Iratxe Jaio ikusmen-artistak, Tere Irastortza Euskal Herriko Idazleen Elkartearen lehendakariak eta Jabier Muguruza musikariak hartuko dute parte. Jardunaldiei amaiera emateko, Josean Muñoz gidoilariak, Eneko Olasagasti zinema zuzendariak eta Mikel Olaziregi Donostiako Zinemaldiko zuzendariak "Sorkuntza prozesua ikus-entzunezkoen sektorean" aztertuko dute.